



Gizarte Segurantzako afiliazioak EAEn. Turismoaren sektoreko adar bereizgarriak

2025eko 2. hiruhilekoa

www.euskadi.eus/web01-s2tumerk/es/contenidos/informacion/tur_estatis_sstur_port/eu_def/index.shtml



Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (2. hiruhilekoa)

Aukeratutako aldiaren batezbestekoak

Afiliazio mota Jarduera	Asalariados		Autónomos		Guztira	
	Afiliazioak	urtearteko ald (%)	Afiliazioak	urtearteko ald (%)	Afiliazioak	urtearteko ald (%)
A.OSTALARITZA	56.629	1,73 %	14.543	-0,50 %	71.172	1,26 %
+ A1.OSTATU ZERBITZUAK	7.233	2,85 %	842	2,81 %	8.074	2,85 %
+ A2.JAKI ETA EDARI ZERBITZUAK	49.396	1,56 %	13.702	-0,69 %	63.098	1,07 %
B.BIDAIA-AGENTZIAK ETA BIDAIA-ANTOLATZAILEAK	1.558	1,28 %	704	0,96 %	2.262	1,18 %
+ B.BIDAIA-AGENTZIAK ETA BIDAIA-ANTOLATZAILEAK	1.558	1,28 %	704	0,96 %	2.262	1,18 %
C.BESTE JARDUERA TURISTIKOAK	34.509	2,83 %	5.647	-0,43 %	40.156	2,36 %
+ C1.BIDAIARIEN LURREKO GARRAIOA	6.264	2,10 %	2.159	0,05 %	8.423	1,57 %
+ C2.BIDAIARIEN BESTE MOTATAKO GARRAIOA	3.041	-3,92 %	10	0,00 %	3.051	-3,91 %
+ C3.GARRAIOAREKIN UZTARTUTAKO JARDUERAK	9.136	8,12 %	383	-8,30 %	9.519	7,34 %
+ C4. GARRAIOAREN ALOKAIRUAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK	1.404	5,01 %	126	-10,19 %	1.530	3,56 %
+ C5.KULTURAREN INDUSTRIA	2.907	2,92 %	1.565	-0,91 %	4.471	1,54 %
+ C6.KIROL ETA AISIALDIAREN INDUSTRIA	11.757	0,93 %	1.404	2,76 %	13.161	1,12 %
Guztira	92.695	2,13 %	20.895	-0,43 %	113.590	1,65 %


Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (2. hiruhilekoa)

Urte arteko aldakuntzaren bilakaera

2025eko bigarren hiruhilekoan, turismo-jardueretan **113.590** afiliatu daude guztira Gizarte Segurantzari (Euskal Autonomia Erkidegoan alta emanda dauden afiliatu guztien % **11,1**). Afiliazio kopurua % **1,6** igo da (2025eko 2. hiruhilekoan 2024eko 2. hiruhilekoaren aldean).

Turismoarekin lotutako jardueren multzoak euskal ekonomia osoak baino portaera hobea izan du, aldi honetan afiliazioek % **0,9**ko hazkuntza izan baitute.


Turismoaren sektorean soldatapekoen afiliazioek gora egin dute (% **2,1**) eta autonomoen kopuruak behera egin dute (% **-0,4**).




Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (2. hiruhilekoa)

Jardueraren arabera

Jardueraren araberako banaketa



Urte arteko aldakuntza kopuru absolutuetan, jarduera-adarraren arabera. Δ 2T 2025 / 2T 2024



Turismoaren berezko adarretako afiliazioak, termino absolutuetan, 1.839 afiliatu gehiago erregistratu ditu (% 1,6) 2024eko bigarren hiruhilekoan baino. Ostalaritzan, 889 afiliazio gehiago erregistratu dira (% 1,7); beste turismo-jarduera batzuetan, 924 afiliazio gehiago (% 2,4); eta, azkenik, bidaia-agentzietan, 26 afiliatu gehiago (% 1,2).

Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (2. hiruhilekoa)

Ostalaritza eta bidaia-agentziak-turismo-operadoreak


Turismoarekin lotura zuzenagoa duten jarduerak (ostalaritza eta bidaia-agentziak) turismoaren sektoreko enplegu osoaren % 64,6 dira. Afiliatuak 72.519 izan ziren 2024ko bigarren hiruhilekoan, eta 73.434 2025eko bigarren hiruhilekoan, hau da, % 1,3 gehiago.

Jarduera	Afiliazioak	afil. aurreko urtea	urtearteko ald.	urtearteko ald (%)
▢ A.OSTALARITZA	71.172	70.283	889	1,26 %
▢ A1.OSTATU ZERBITZUAK	8.074	7.851	224	2,85 %
▢ A2.JAKI ETA EDARI ZERBITZUAK	63.098	62.433	665	1,07 %
▢ B.BIDAIA-AGENTZIAK ETA BIDAIA-ANTOLATZAILEAK	2.262	2.236	26	1,18 %
▢ B.BIDAIA-AGENTZIAK ETA BIDAIA-ANTOLATZAILEAK	2.262	2.236	26	1,18 %
Guztira	73.434	72.519	915	1,26 %


Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (2. hiruhilekoa)

Ostalaritza eta bidaia-agentziak-turismo-operadoreak, lurralde historikoaren arabera

**Portzentajezko banaketa lurralde historikoaren arabera
2025eko 2. hiruhilekoa**



**Afiliazioaren urte arteko aldakuntza, zifra absolutuetan,
lurralde historikoaren arabera. Δ 2T 2025 / 2T 2024**




Afiliazioak lurralde historikoen arabera banatuz gero, Arabak enpleguaren % 13,6 hartzen du, Bizkaiak % 49,3 eta Gipuzkoak % 37,1.

Urte arteko aldaketari dagokionez (2025eko 2. hiruhilekoa 2024eko 2. hiruhilekoarekin alderatuta), ostalaritzan eta bidaia-agentzietan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan afiliazio kopuruak gora egin du (Arabak 90; Bizkaian 325 eta Gipuzkoan 500).


Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (2. hiruhilekoa)

Afiliazioak sexuaren arabera azterketa


Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak Guztira



Ostalaritza




Bidaia -agentziak




Enpleguaren feminizazioa turismoarekin lotura zuzenena duten adarretan (ostalaritza eta bidaia-agentziak), non afiliazioen % 58 eta % 72 emakumeak diren.

Turismoaren adar bereizgarrietako afiliazioak (2. hiruhilekoa)
Ostalaritza eta bidai agentziak. Afiliazioak sexuaren arabera

SOLDATAPEKOen afiliazioen banaketa, sexuaren arabera



AUTONOMOEN afiliazioen banaketa, sexuaren arabera



● emakumezkoa
● gizonezkoa

Generoen arabera afiliazio-banaketa alderantzikatu egiten da autonomoen kasuan, gizonen afiliazioak emakumeen afiliazioak baino ehuneko handiagoak baitira.

Metodologia

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak afiliazioei buruz emandako informazioaren ustiapenetik lortzen da aurkeztutako informazioa.

Turismoaren berezko jarduera ekonomikoen mugaketa nazioarteko hainbat erakundek emandako gomendioetan identifikatu da, hala nola Turismoaren Mundu Erakundeak (OMT) eta Nazio Batuen Estatistika Batzordeak. Ustiategi honetan, Turismoaren Kontu Satelitea dokumentuan jasotako gomendioak erabiltzen dira.

Turismo-sektoreko afiliatuen kopurua, aldi berean, sektoreko enpleguaren gutxiespena eta gainestimazioa da. Gutxiespena da, ez baititu aintzat hartzen neurri batean sektore turistikoaren jarduerari lagun diezaioketen beste jarduera ekonomiko batzuk, eta, bestalde, gehiegizko zenbatespena da, kontuan hartutako jarduera-adarrek ez baitute beren jarduera sektore eta eskari turistikorako soilik garatzen.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren estatistika-orrian informazio gehiago aurki dezakezue Estatistika Organo Espezifikoak Gizarte Segurantzako afiliazioei buruz egiten duen ustiapenari buruz.

https://www.euskadi.eus/web01-s2tumerk/es/contenidos/informacion/tur_estatis_sstur_port/eu_def/index.shtml



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Estatistika Organoa